

B

BARREN

Familiako bat gehiago

Nastia Petrenko, Ukrainatik Mendarora



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Mendia deskribatzen

Orain dela urte batzuk, DBHko 2. mailan nengoela edo, irakasleak zera galdetu zigun: Zuek nola deskribatuko zenituzkete mendiak?

Gaurko egunean, hau izango litzateke nire erantzuna: Mendiak ez dira egin edo desegiten, ez eta ur gardenetan ezkututzen. Mendiak zerbait gehiago dira, lur eta elur masa handiak, barnean mota guztietako harriek iragazkaitz egiten dituzten masa handiak.

Badaude elur gabeko mendiak, edota elurra baino glaziar handiagoek inguratzen dituztenak. Bai eta, zuhaitzek oxigenatuak, berdetasun giro naturala emanaz, edo hondar marroietan murgilduak, eguzkiaren berotasunak kixkaliak.

Batzuk solteka agertzen dira, beldurra edukiko balute bezala; besteak, ordea, taldeka, harresi igaro ezin antzera, bata besteari eskutik emanda. Horrelakoak dira mendiak, handiak eta txikiak, zabalak eta pikoak.

Batzuek beraiena dute Europa. Mendiek ematen baitiote nortasuna kontinente aberats honi. Asia, berriz, Himalaya eta Karkakorum mendikateen baitan bizi da. Hemen, zoritxarra eta ospea eskutik emanda doaz. Bestalde, Afrikan, gosearen eta borroka armatuen irtenbide egiten dira mendiak.

Gainontzekoek beraien eremua zabaltzen dute, kontinenteen arteko mugak hautsiz batzutan, edota estatuen arteko igarobide bihurtuz.

Nik horrela deskribatuko nituzke mendiak, paraje eder eta zoragarriak, sufrimenduaren eta gozamenaren arteko klimaxa aurkitzeko guneak.

Horregatik, maite eta zaindu ditzagun, ondorengoek ere guk ezagutu duguna ezagutu dezaten.

Eñaut Izagirre



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitiez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Maite eta zaindu ditzagun mendiak,
ondorengoek ere guk ezagutu duguna ezagutu dezaten"**

NAHASTE BORRASTEKO BIDEOA ETA ARGAZKIAK JARRI DITUGU INTERNETEN



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



“Niretzat
baino,
famiarentzat
izan da
gogorra”

JUAN MARI MENDIZABAL

18/98 SUMARIOKO AUZIPETUA

18/98ko makrosumarioaren harira atxilotu zuten pasa den azaroan ihes egiteko arriskua zuela argudiatuta. Ekineko (KASen jarraipena) partaide zela leporatu zioten. Zazpi hilabetetan hainbat kartzelatan egon da: Soto del Realen (hiru egun), Alcala Mecon (hamar egun inguru) eta bukatzeko Bonxen (Galizia). Osasun arazoengatik erabaki zuen Espainiko Auzitegi Nazionalak kalean lagatzea. Juan Mari Mendizabalek adierazi nahi du behin behineko askatasunean dagoela eta makroprozesu luze horretan jendearen babesa sumatu duela. Halaber, berak baino okerrago familiak pasatu duela esan du. 18/98 sumarioan 52 euskal herritar epaitu zituzten, eta horietatik hiru kalean laga dituzte osasun arazoak medio. Mendizabalekin batera Olatz Altuna irten zen kalera egun berean.

lhes egiteko zenuten arriskuagatik hartu zintuzteten preso Espainiako Justiziaren arabera...

Urte eta erdian egon ginen Madrilera epai-ketara joaten, eta aurretik ere hemen egon ginen. Hori da errekurtsioa eskatzeko argudioetako bat. Osasun arazoak zirela-eta, kalean lagatzeko erabakiarekin fiskala kontra zegoen.

Zein osasun arazo dituzu?

Loarekin hartutako gaitza da. Tratamendua eskatzen du; arnas arazoak sortzen ditu. Kanpoan tratatzen ari nintzen. Gaixotasun serioa dela frogatzen duen guztiari aske lagatzen ari dira. Inma Berriozabal laga zuten lehenengo kalean. Gero Olatz Altuna eta ni. **Makrosumarioko gainontzeko auzipetuak ezagutzen zenituen?**

Batzuk bai.

Bisitak izan dituzu espetxean, nahiz eta 600 kilometrora egon...

Jendea portatzen da. Gaua bertan pasatu beharra zuten. Bisita asko izan genituen.

Zuretzat ala familiarentzat izan da gogorra-goa?

Kanpoan zeudenentzat. Gogorra egiten da urruti egotea. Familiak ordaintzen du sakanaketaren ondorioa.

Egoerara egokitu zinen?

Bai, lortu nuen.

Mundu guztia ez da kartzelara hain erraz egokitzen...

“18/98 makrosumario honek ezker abertzalea blokeatu edo indargabetu nahi du”

Ez dakit. Guk badakigu zergatik izan den espetxeratzeara eta ohitu egiten zara. Bizitza antolatu egon behar duzu. Espetxeko moduluetan banatuta geunden euskal presoak. Gero elkar ikusten genuen ikastaroetan. Elkartzeko esaten genien baina ez ziguten kasurik egiten.

Zer ikastaro egon dituzu?

Ingelesa eta galiziera ikasten hasi nintzen.

Zer nolako tratua jaso duzu?

Gure kasuan ez dugu tratatu txarririk jaso.

18/98ko makrosumarioa oso konplexua da eta zirrikitu asko ditu 1.100 orrialdeko txostenak. Abokatuak zer diote?

Gure sententzia errekurritu egin zuten. Epaia ezaguna da. Erabaki politikoa da. Delituaren ustezko harremana hori da: dena dela ETA, inolako proba garbirik gabe. Jende mordoak zigortu dute, eta horren aurka egin dute helegitea.

Zure abokatuak, orduan, zer defentsa egingo du?

Lan mordoak egin dute. Juridikoki egin daitekeen guztia egin dute. Oso ondo garatu zuten planteamendu juridikoa.

Epaiaren arabera ez zarete talde sateliteak, eta denak ETArekin parte zarete...

Herri mugimendutik gatozen taldeak gara. Ni euskararen munduan ibili naiz betidanik. Besterik ez.

Ezker abertzalea autonomoa da?

Ezker abertzalea mugimendu politikoa da. Gero horren barruan hainbat mugimendu eta elkarte daude.

Baina ez dauka zerikusirik makrosumario honek leporatzen zaionarekin?

Ez. Makrosumario honek ezker abertzalea blokatu eta indargabetu nahi du.

Jendearen erantzuna espero zenuena izan da?

Plataforma osatu zuten Euskal Herrian, eta gu espetxean sartu gintuztenean ere manifestazioak eta grebak egin zituzten. Erantzuna ona izan zen. Legebiltzarrak ere onartu zuen zer bait.

Herritarren artean ere berotasuna igarri duzu?

Lehenengo egunetan hurbildu zaizkit bereziki herritar asko ongi etorria ematea.

Norbaitek errugabea zaren galdetuko balizu, zer erantzun zenuke?

Egoera normalizatu batean joan gaitzke errugabetasunaren bila. Arazo politikoa dago, eta erabakiak politikoa dira. Eta lan politikoa zigortzen dute, batzuetan gehiago besteetan gutxiago. Denok zaku berean sartzen gaituzte.

Lanean jarraitu behar duzu?

Egoera behin behinekoa denez, eta 50 urtetik gora ditudanez, ez da erraza izango.

Zer egiteko asmoa duzu?

Geldi nago. Azkenengoz Elhuyarren egin nuen lan euskara plana egiten. Harrezkeroz

ez dut lanik egin. Ez da erraza izango lana aurkitzea.

Aktualitate politikoaren inguruan zer balorazio egiten duzu?

Korapilatsua da. Ezker abertzaleak proposamen politikoa egin zuen gatazka konponbidean jartzeko. Gobernu oso gogor dago erakutsi nahian hemengo borroka txikituta edo indargabetuta dagoela. Eta hemengo arazoarekin bukatzen ari dela. Ibaurretxeren galdeketa jokaldi politikoa da hauteskundera begira. EAJK boto asko galdu ditu, eta berreskuratu egin nahi ditu.

“Erabaki politikoa izan da. Delituaren ustezko harremana hori da: dena dela ETA”

Ezker abertzalearen sostengua ere ez da jaitsi?

Alderantziz, botoetan ikusi zen. Utzi zioten lekuetan emaitza onak lortu zituen.

Legala balitz, emaitza orokor onak lortuko lituzke?

Ez dakit. Ondo posizionatuta zegoen haustekunde haietan. Posizio politikoak ondo finkatuta daude. Mahai gainean ere elkarriketak egon ziren, eta gelditu egin da.

Edo gelditu egin zuten...

Gure ustetan, dugun informazioaren arabera, PSOEk atzera egin zuen.

ETAren atentatuak ez zuten zerikusirik izan?

ETAk baloratu zuen ez zegoela momentu horretan konponbiderako modurik. Eta publiko egin zuen. Konponbideak lehenago edo geroago etorri beharko du.

PSE-EErekin aldetik aldaketarik igarri duzu?

Ez. PSE-EE pixka bat harrotuta dago azken hauteskundeetan lortu dituzten emaitzekin.

Mikel Ibañez ere kartzelatik kanpo dago...

Gutxienez atera dute gartzelatik. Preso dezentente daude oso gaitz larriekin, eta kondeenak luzatu egiten dituzte.

PRAILEAITZEKIN KEZKATUTA



Harrobia eta kobazuloa goitik ikusita. Eskuman, Praileaitz barrutik, aurkitutako zintzilkarri garrantzitsua eta Mutriku Natur Taldeko Javi Castro eta Diego Mendoza.

Euskal Herriko margorik zaharrenak Praileaitzen topatu zituzten, Debako harrobiaren ondo-ondoan. Hain gertu dagoen ondarearen arriskuaz jabetuta, Elgoibarko eta Mendaroko hainbat lagunek bat egin eta Praileaitz ezagutzeko kanpaina jarri dute martxan. Martitzenean gaiaren inguruko erakusketari ekin zioten. Uztailaren 11ra bitartean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, batez ere Praileaitzen inguruan zer gertatzen den gertutik jakin nahi dutelako. Ekitaldi guztiak, agendan (25. orrialdean).

Oier Narbaiza

Praileaitz ezagutzeko kanpaina astelehenean hasi zen, erakusketarekin eta Mutriku Natur Taldeko bikideren hitzaldiarekin. Elgoibartik hain gertu dagoen altxorren berri emateaz gain, Praileaitzeko ondarearen arriskuak agerian laga zituzten hizlariak. Izan ere, ondareari eusteko lanean dihardute buru-belarri.

Diego Mendoza biologoa da, eta Javi Castro Aranzadi zientzia elkartekoa. Biek Mutriku Natur Taldean dihardute,

eta martitzenean auziari buruzko hainbat informazio eman zuten.

Praileaitz Debako harrobiaren ondo-ondoan dago. Elgoibartik joanda, harrobia pasatu eta ondorengo bihurgunearen amaieran dago, goi aldean, mendi magalean.

Harrobiak ez du hain handia ematen. Harrobiaren zulo ikaragarria ezkututzen du Magalak: anfiteatroa dirudi. Mendiak 200 metroko altuera bazeukan, gaur egun punturik altuenak 90 dauzka.

Praileaitzko kobazuloa gune pribilegiatuan dago. Mutriku Natur taldeko Diego Mendozaren esanetan, munduan oso leku gutxi daude hainbeste kobaztarnategirekin: Izarraitz-Arno inguruan 76 bat daude. Material litikoak eta tresnak topatu ditzuzte bertan, Magdaleniense garaiko hainbat aztarna garrantzitsu. Aurkikuntza batzuk 18.000-19.000 urte izan ditzakete.

Berez, hori guztia aurkitzea ez da nahikoa harrobia gelditzeko. Halakoe-

tan, aztarnak batu, sailkatu eta museora eraman ohi dituzte. Kobazuloa bota egin daiteke. Praileaitz II-ko aztarnategi garrantzitsuarekin horixe gertatu zen. Hala ere, Praileaitz I-en margoak topatu zituzten kobazuloa lehertzeaz zirenean. Kasu horretan legeak ingurua zaindu behar dela dio.

Zer da ingurua? Mutriku Natur Taldearen ustez, ekosistema bera da ingurua. Horregatik nahi dute harrobiaren jardue-
ra gelditzea eta mendi magal guztia gordetzea. “Gu ez gaude harrobiaren aurka, ondarea zaintzearen alde gaude”, diote. Jaurlaritzak kaleratutako dekretuak ez du kobazuloa nahikoa babesten, ingurune natural eta historikotik isolatuta lagatzen du euren ustez.

Borroka legal gogorari ekin dio boluntarioz osatutako talde horrek. Izan

ere, harrobiak Kosta Legea urratzen duelakoan, debekatutako eremuan lanak egin dituztela salatu du Epaitegian. Mendi magalaren inguruan lanean aritzeko behin behineko debekua ezarri diote harrobiari. Hala ere, beste alde batean jarraitzen dute, erromesen ospitale zaharraren inguruan. Beste eremu hori ere babestu egin nahi dute.

Harrobia Amenabar enpresak eskuratu du, taldearen arabera. Hala ere, enpresa boteretsua izanik, borroka zaila dutela uste dute, batez ere harrobia interes estrategiko garrantzitsuetako proiektuekin lotuta egon litekeelakoan (Abiadura Handiko Trena, Mutrikuko portua, Pasaiko superportua, A-8 Mutrikurekin lotzeko bidea...).

Euskal Herriko margorik zaharrenak daude, orain dela 18.000 urtekoak

KRONOLOGIA

1983: kobazuloa topatu eta aztarna batzuk topatu zituzten. Ez zitzaion garrantzi handirik eman.

2000: Harrobiak kobazuloa desagertarazi aurretik, Aldundiak azterketa egiteko eskatu zion Aranzadiri.

2001: Xabier Peñalber arkeologoak aztarna magdalenenseak topatu zituen.

2005: Aztarnen garrantzia aurkeztu zuen Aldundiak, baina ez zuen koba gordetzea aurreikusit.

2006ko abuztua: Bota aurretik, kobazuloaren neurriak hartzen ari zirela, margoak topatu zituzten. 18.000 urte inguru dituzte eta Euskal Herriko zaharrenak dira. Diputazioak ez zuen ezer esan.

2006ko udazkena: Aranzadik margoen berri izan zuen. Mutriku Natur Taldeak prentsara filtratu zuen aurkikuntza. Arkeologoak barruan zeudela, harrobian leherketak egin zituen pinturak baino 20-30 metro gorago: arkeologoek antxintxika irten behar izan zuten. Filtrazioak sortu zirela eta margoak arriskuan daudela esan zuten.

2007: Aranzadik ibaiaren inguruko mendi magal guztia gordetzeko exigitu zuen. Artista talde zabal batek Praileaitz salbatzeko bat egin zuen. Jaurlaritzak dekretu bat kaleratu zuen kobazuloaren inguru hurbilena babesteko, harrobia apenas mugatzen duena. Kosten Legea urratzen duelakoan, harrobiak magalaren inguruan lana egiteko behin behineko debekua dauka.

Peñalber arkeologoaren hitzaldia Kultur Etxean

Xabier Peñalber arkeologoak kobazuloaren balioaz berba egingo du martitzenean, bera da eta Praileaitzko indusketen arduraduna. Ondoan lan-taldeko Sonia San Jose ere izango du. Bien artean orain arte egindako aurkikuntzei buruz eta santutegiaren garrantziari buruzko xehetasunak emango dituzte. Hitzaldia euskaraz eta gazteleraz izango da, Kultur Etxean, 19:30etatik aurrera.

Elgoibartarrak eta mendaroarrak ondarea ezagutu nahian

Elgoibar eta Mendaroko hamabost lagunek bat egin dute Praileaitzen inguruan zer gertatzen den jakiteko, ondarearen geroarekin kezkatuta. “Guk ikusten dugu batek esaten duela gauza bat eta beste batek, beste bat. Ikusten dugu ondare bat dagoela eta babestu egin dugula, berandu izan baino lehen”, azaldu du Arkaitz Iruetak.

Gutxinaka, elkarlanean jardun dute eta kanpaina martxan jartzea lortu dute. Erakusketa ere eurak prestatu dute. Hamazortitik berrogei urte baino gorako jendea dago taldean. Aniztasunaren ispi-
lu, erakusketarako bakoitzak gehien erakartzen duen gaia landu du: geologia, historia, artea, alde espiritual eta abar. “Batez ere guk jakiteko jarri dugu martxan kanpaina guztia, eta interesa duen jendearentzat zabaldu nahi dugu”, azaldu dute. Hauxe da euren ekarpena. Bide batez, Praileaitzen alde euro bat eskatzen dihardute eta kamisetak saltzen. Jendearen iritziak biltzeko koaderno bat daukate, gainera.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Kimetz elkarteoen partetik, eskerrak

Pasa den asteko ostiralean burutu zen Nahaste Borrasteren XXIV. edizioa- rekin pozik gelditu gara: partaidetza ona izan da, kaleko giroa ezin hobea, eguraldia lagun, ez zen istripurik izan eta, oro har, gauzak guk nahi moduan atera ziren. Gure aldetik eskerrak ematea besterik ez zaigu falta: Elgoibarko Udalarari emandako laguntza guztiagatik; Elgoibarko denda eta tabernei, beste urtebetez lagundu digutelako; herritarrei kolorea eta beroa jarri ziotelako egunari, Gurutze Gorriari eta nola ez, kirolariei.

Datorren urtean XXV. edizioa izango da eta behar den moduan ospatzen saiatuko gara. Ea marka guztiak gaintzea lortzen dugun denon artean.

Kimetz Elkartea ☺

Ez al ditugu denok eskubide berberak?

PNVk dio pertsona guztien Giza Eskubideak defendatzen dituela. Argi geratu da hori ez dela egia. Pasa den ekainaren 26an, herriko hainbat eragile eta norbanakakoren artean agiri bat sinatu zen, eta bertan minbiziaz jota dagoen Mikel Ibañez preso elgoibartarraren askatasuna eskatzen da, zeren eta larriki gaixo dauden presoek aske izateko eskubidea baitute, beraien etxetan sendatzeko. PSOEek ordea, Mikel Ibañez gaixorik izanda ere, preso mantentzen du eta Gobernuak duten arduraren bereziki salatzen da agiri horretan.

Agiri hori ekainaren 26an eraman zen Udalera, bertan egin zen plenoan aurkezteko, baina Elgoibarko Udal Gobernuak (PNV-EAK) atzera bota eta berriak eginiko beste mozio bat aurkeztu zuten.

Horren berri inon aditzera eman ez denik, zer azalpen eman behar digu guzti honen aurrean Elgoibarko PNV-EAK agiri hau sinatu dugun guztioi? Ez al dira Mikelen eskubideak errespeta-garriak? Badirudi ezetz. PNVk beraien biktimak omenduz eta goraiapatuz jarraitzen duen bitartean, beste batzuk ordea, inork defendatzeko eskubide gabe, gaixo eta isilean jarraituko dute.

Sinatzaileetako eragile bat.

Etixerat ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Zuhaitz
Gurrutxaga

Janitzio.
Hitz euskalduna
dirudien arren, oso
urrunean dagoen herri-
txo baten izena da. Mexiko hego-

mendebaldeko laku batean kokatzen da irla txiki hau. Bertan izan naiz gaur. Biztanlegoaren ehuneko ehuna indijena da, eta sustrai ezagunik ez duen mexikar hizkuntza bakanetakoa hitzegiten dute, Purepecha hain zuzen. Astean birritan txalupaz iristen dira bertako merkatariek herri handixeago batera. Bertan janaria elkartrukatzeko aritzen dira eta jarduera hori da beraien ekonomiaren oinarri. Ehunka urtetan eraman du herri honek bizimodu hau, mundu globalizatuaren uestezko aurrerapenei jaramon gehiegirik egin gabe. Baina janitziar gizon jator batek kontatu dit gaur herriko gazteak, lotsa dela eta, purepechaz jarduteari uzten ari zaizkiola. Eta inork esan beharrik gabe konturatu naiz bertako gizon zein emakumeek begirada jaisten dutela nire gisako edozein gizon zuriren aurrean, beraien burua gutxiagotzat balute moduan.

“Mexikoko janitziar indigena gazteek euren hizkuntza uzten ari dira, lotsa dela eta”

Ez dira urte asko Elgoibarren ere baserritarrak kalera jaistean euskaraz lotsaz hitzegiten zutela, erdaraz fin zekitenean burlak jasotzen zizutzelako. Neuri ere deitu izan didate txikitari “kaxero” moduko hitzez, iseka egiteko asmotan. Zortez, pasa dira garaioak eta orain baserritarrak faltan bota ohi ditugu, gero eta gutxiago dauden heinean. Horrez gain euskara ere harro zaintzen dugu zapaldu nahi dutenen aurrean. Lortuko al dute gure lagun purepechek berriro ere beraien buruaz harro izaten? Eta inor lotsatzekotan, lotsatuko al da lurraldeotan espainolez soilik dakiena?



Unai
Arrieta

Badirudi bai, Zuhaitz, badela Euskal Herri osoan euskararen aldeko joera bat. Hala adierazi digu berriki aurkeztu duten IV. Inkeste Soziolinguistikoak. Baina bada errealitatearen gordina adierazten duen beste daturik ere inkesta horretan. Moteltze prozesuan omen gaude ezagueran eta nabarmenago, erabileran. Euskarak dakigunon uste eta egiteak, sentitu eta esaten ditugunak, ez dira izaera edo jite berekoak.

Ez da euskararen aurkako politika oldarkorrik falta. Berdintasuna eta askatasuna lelo nagusitzat dituen Errepublikako Frantsesaren Akademia jakobinoak heriotza zigorra ezarri dio euskarari. Gure hizkuntza Konstituzioan aipatze hutsak Frantzia hondoratzea ekarriko omen du. Nafarroako Euskararen Legea berriz, pixkanaka itotzeko plana da.

“Euskara bizitzaren eremu guztietara zabaldu behar da”

Estellerria maite dugu familian eta badugu han gure txokoa. Emakumezkoen goi mailako eskubaloian bi final ikusteko aukera izan dugu aurten Lizarran, eta bietan euskal talderen bat jokoan. Bertako Itxakok ezin izan zuen Europako EHF titulua eskuratu, Donostiako Bera Berak ere ez zuen Espainiako kopa bereganatu. Penatan alde egin genuen bi norgehiagoketatik, penatan euskal talde bietako batek ere ez zuelako garaipenik lortu. Pena handiagoz, ordea, Lizarrako eskubaloi antolatzaileek euskara ahanzturaren zuloan zokoraturik dutelako. Izango al da eszena aproposagorik, gure hizkuntza plazaratzeko?

Hiztun aktiboak lortzeko, euskara bizitzaren eremu guztietara zabaldu behar da. Badu gure kirolak honetan ere bide berriak bilatu beharra.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Zergak eta tasak Internet bidez ordaintzeko aukera jarri du martxan Udalak.

Badaukazu ordainketak Internetez egiteko ohiturarik?



Iraider Garcia

22 urte, langilea

Ez, ni eta teknologia berriak ez gara oso ondo konpon-tzen. Orain lanean Internet erabiltzen hasi naiz, baina oinarritzkoa. Lagun batzuk bidaia txartelak erosten di-tuzte sarean.



Txankar Rodriguez

39 urte, tailerreko langilea

Oso gutxi, konfiantza faltaga-tik izango da. Aurrez aurreko tratua nahiago dut. Ez dut In-ternet bidez erosteko beha-ririk sentitzen. Eta momentuz, betiko moduan erosten eta ordaintzen jarraituko dut.



Iñigo Cadarso

34 urte, injenerua

Bai, bidaiak eta kamerak erosi izan ohi ditut. Gero eta beldur gehiago ematen dit kreditu txartelaren datuak sarean jar-tzea. Hala ere, erosogoa da in-ternet bidez erostea, eta ba-tzutan merkeagoa da.



Josu Guinea

27 urte, langilea

Bai, zerbait erosi izan dut. Di-ru askorik ez dudanez, da-tuak sarean jartzeak ez dit beldurrik ematen. Ondo dago tasak Internet bidez ordain-tzea. Erraza bada, nik ere egingo dut.

10^{eko}
TXIKIAN



VICTOR GONZALEZ

Masajista

1. Herriko txokorik gustukuena? Eta zatarrena?

Herri guztia maite dut, baina Leku Eder bereziki. Madala ez zait gusta-tzen; zarata gehiegi dago.

2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Aparkalekuak falta zaizkio, erdigunean bereziki. Eta merkatuan lan egi-ten duten askok ez daukate non aparkatu. Soberan eliza ondoko par-kea dago. Elgoibarrek parke modernoagoa merezi du.

3. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Merkadilloa erdigunera ekarriko nuke.

4. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Pixka bat aztoratzen garenak edo lasai egoten garenak. Muturreko zer-bait. Bata ala bestea.

5. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Merkadilloarekin jendea mugitu zen.

6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Txiki geratu dira kirol instalazioak. Aukera gehiago egon beharko litza-teke kirol gehiago egiteko.

7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Denetik dago. Ondo dago.

8. Joango zinateke beste herriren batera bizi izatera? Nora?

Ez. Elgoibaren jaio nintzen eta gustura bizi naiz hemen. Deban ere bizi izan nintzen. Hemendik ez naute kolpeka ere aterako. Herrian ditut la-gunak, eta hemen dut dena. Zapatuetako mobidak kenduta, herria la-saia da, eta behar dudan guztia daukat. Gainera lan egiten dudan he-rrian bizi beharra dut, ez dudalako autorik.

9. Herri euskalduna iruditzen zaizu geurea?

Elebiduna da. Euskaldunak daude, eta gaztelania ama hizkuntza duten beste herritar asko.

10. Telebistan askotan irten da gure herria?

Ez askotan, ezta gutxitan ere. Eta albiste on zein txarreatatik irten da telebistan Elgoibar.



Santa Ana kaleko Eroski inguruko etxebizitza mordoa gorritz margotu dituzte: "Eroski supermerkatuak inguruko etxebizitzetako fatxadak gorritz margotu ditu, bai kale aldetik eta baita erreka aldetik ere. Bizilagunoi ez digute baime-nik eskatu, eta ez zaigu batere gustatzen egin dutena. Ez dugu ulertzen nola eman dioten hori egiteko baime-na, besteok edozein txikieria egiteko oztopo mordoa izaten ditugunean. Estetika errespetatu egin behar dela diote, baina diruak badirudi dena konpontzen duela. Santa Ana kaleko bizilagunak oso minduta eta haserre gaude".



Gabriel Krutzelegiko etxebizitzaren atzean gazteak edaten egoten dira zapatuetan: "Hamabi urte inguruko gazteak edatera joaten dira zapatuetan gure etxeen atzeko aldera, eta botilak apurtu egiten dituzte. Ondorioz, kristalez josita geratzen da ingurune guztia. Gur-

Erretxindirako bidean baranda erabat herdoilduta dago:

"Autopista gaineko zubian, Erretxindirako bidean, baranda oso egoera txarrean dago. Erabat herdoilduta dago, eta leku batzuetan, gainera, hondatuta dago. Norbait autopistara erortzeko arriskua handia da. Herdoilaren ondorioz, bestalde, punta zorrotz eta arriskutsuak irten zaizkio barandari, eta norbaitek mina hartuko du egunen batean. Hori gertatu baino lehen, neurriak hartzeko eskatu nahi diot Udalari. Kontuz ibiltzeko seinale batzuk jarri behar dira gutxienez, eta barandak lehenbailehen aldatu behar dira. Herriko barandak aldatzen hasi dira dagoeneko, eta Erretxindikoak lehenasuna izan beharko luke."

pildun aulkian nabil, eta errubera zulatu zait, eta nire txakurrak min hartu izan du kristalekin. Gazte horiekin hitz egitera joan nintzen, eta aurpegira barre egin zidaten. Bizilagunak errespetatu ditzatela, eta ez dezatela kristalik apurtu, mesedez".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ANDONI RODRIGUEZ MATEOS

GARBI MARGOAK

C/ Gabriel Krutzelegi,
16 zbk. - 4. B
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 616 995 203



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏎️ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🏆 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

Udalak 2007-2011 Legealdi Plana onartu du azken osoko bilkuran

Udal aurrekontuaren %30 erabiliko dute txostenean jasotako ekintzak egiteko

Datozen hiru urteetan Udalak egingo dituen azterketak eta jarduerak jasotzen dituen Legealdi Plana onartu du osoko bilkurak, EAJ, EA, PSE-EE eta PPko zinegotzien aldeko botoekin. EB-Aralarrek kontra bozkatu zuen, eta Unai Zulaikak azaldu zituen arrazoiak. Bere ustez, ez zegoen enpresa pribatu bat kontratatu beharrik, eta alderdi politikoen eguneroko ekarpenak jasotzea nahikoa izango litzateke.

Bestalde, txostenean jasotzen diren gaiak ekonomikoki zehaztu gabe daudela gaineratu zuen, eta lanak burutzeke eperik ez dela azaltzen azpimarratu zuen. Javier Nuñez PPko zinegotziak aldeko botoa eman zion legealdi planari, baina aste honetan komunikabideetara bidali duen prentsa ohar baten bidez, zalantzak azaldu ditu: "Gai garrantzitsuetan beti babestu dut Udala, baina nire ekarpenak ez dituzte aintzat hartzen, eta, akaso, nire postura aldatu egingo dut".



Hogei lan arlo

Legealdi Planak hogei lan arlo jasotzen ditu. Besteak beste, kultura, euskara, garapen urbanistikoa, gizarte zerbitzuak, emakumea, hezkuntza eta gazteria arloetako gaiak jorratzen dira bertan, eta datozen urteotan egin beharreko lanak aipatzen dira txostenean. Udal aurrekontuaren %30 erabiliko da txostena gauzatzeko.

Mikel Ibañezen mozioa

Elgoibarko Ezker Abertzaleak Mikel Ibañezen egoera salatu eta osasun egoera larrian dauden presoek eskubiak errespetatzeko mozioa aurkeztu zuen, herriko hainbat talderen babesarekin, baina osoko bilkurak ez zuen bozkatu. EAJk mozio alternatiboa eraman zuen batzarrerara, eta onartu egin zuten.

Altzolako trabesian lehenbailehen esku hartzeko eskatu du Zubibaik



Garraio eta Herri Lan Zuzendaritzaren datuak plazaratu ditu Altzolako Zubibai elkarteak. Txosten horren arabera, 2003tik 2007ra lagun bat hil eta beste 49 zauritu dira Altzolako trabesian, eta ondorioz, abiadura murrizteko lanak lehenbailehen hasteko eskatu diote Udalari. Alfredo Etxeberria alkateak 2011rako obrak bukatuko dituztela erantzun die, baina Zubibaiko kideentzat, epe hori urrun geratzen da, eta epe motzerako eurriak hartzeko eskatu dute: "Datorren urterako semaforo bat, auzorakosarrera-irteera eta trabesia eginda egon beharko lukete", adierazi du Alfonso Rubio Zubibaiko kideak.

zubibai
ALTZOLAKO AUZOTARREN ELKARTEA

Logotipo lehiaketa

Zubibai elkartearen logotipo lehiaketak badu irabazlea. Bost lagunek hartu dute parte guztira, eta Arantza Endeiza izan da irabazlea. 100 euroko saria eta Zubia jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi ditu.

Txokoa **Ubitarte-Buru**



Elgoibartarren artean zeresan handia ematen ari dira Ubitarte-Buruko etxebizitzak, eta orohar iritzi nahiko ezkorrak izan dira jasotakoak. Pablo Aretxabala Eusko Jaurlaritzako Sustapen Publikorako arduradunak bestelako jarrera erakutsi du bere blogean. “Elgoibarrera sartzean ikusiko den lehenengo eraikina izango denez, itxura eta bolumenen antolamenduan arreta berezia jarri dugu, eta hiri-kirurgia delakoa aplikatu dugu, alegia, eraikin bakarrarekin espazio handi bat berreskuratu ahal izan dugu”.

Informazio gehiago: www.elgoibarren.net

Berbia **Beherapenak**

Uztailean sartu aurretik jarri zituzten denda batzuetan beherapenak. Ez da denboraldi ona izan merkataritzarentzat, eguraldiak ez du gehiegi lagundu eta jendeak ez du udako jantzirik erosi. Dendetan ere badirudi krisiak eragina izan duela, eta beherapenak indartsu datoz. Deskontu handiak aurkitu daitezke dendetan. Begiz jotako erroparen bat nahi izanez gero, aukera bikaina izan daiteke.

Irudia **Motor istripua**

Martitzen arratsaldean ateratako erretratua da behekoa. Urtebeteko epean bigarren motor istripua ikusi dugu Txankakuako zubian. Kamioi handi bat eta motor bat izan dira protagonistak, orain ere. Kasualitate hutsa izango da, baina beharbada arrisku gune garrantzitsua izan daiteke. Zorionez, oraingoan ere ez da zauritu larririk egon.



Aralarren hitzaldia

“Ezkerretik independentziara” kanpainaren barnean, Aralar alderdi politikoak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Jon Abril Aralarreko koordinatzaile ordeak eta Asier Lertxundi Aralarreko Gipuzkoako Antolaketa arduradunak egoera politiko orokorraz eta herritarrei egunerokoan eragiten dien ekimen sozialen inguruan jardungo dute.

Zerga ordainketa Internetez

Zergak eta tasak Internetez ordaintzeko aukera jarri du martxan Udalak. www.elgoibar.org web gunean, “nire ordainketa on line” atalean sartu eta bertatik egin daitezke. Finantzaketa erakundeak berehala ematen du frogagiria. Gainera, ordainketa horrek ez du komisiorik izango, eta datuen pribatasuna erabat gordetzen da. Hala ere, Internet erabiltzeko ohiturarik ez duten herritarrek, Arreta Bulegoan egin ditzakete ordaintak Kutxa, Euskadiko Kutxa, La Caixa, Bankoa, Banco Santander, Guipuzcoano, BBK, Caja Vital edota Caja Madrid erakundeetako txartelak erabiliz.

San Bartolome jaietako salbea indartu nahi dute

San Bartolome bezpera egunean egiten den salbea indartzeko asmoz, koruko abeslari ohiak eta abesteko zaletasuna duten elgoibartar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditu Parrokiako Abesbatzak. Entseguak astelehenetan izango dira, 20:30ean parrokian, uztailearen 7an hasita.

Karrantzara bidaia

Jubilatuen Egoitzak antolatuta, Karrantzara egingo dute bidaia uztailearen 23an. Egoitzan bertan eman daiteke izena. Interesatuak 27 euro ordaindu beharko dituzte. Irteera goizeko 8:00etan izango da Plaza Handian.

Elkartasuna

Nastia eta bere udako familia

Mendaroko Karmen Larrañagak “alabatxo” bat du Ukrainako Irpen herrian: Nastia Petrenko. Txernobil elkartearen bidez ezagutu zuen. Udako oporraldi osasungarria izatera heldu zen oran dela hiru urte. Eta beste bi aldiz errepikatu du. Karmenen familiak bere esperientzia kontatu digu. Hasierako kezka eta urduritasunak baretutakoan, hartutako erabakiarekin ezin gusurago daude. Familia guztiaren laguntzarekin, bederatzi urteko Nastiak amets egiteko aukera du.

Andoni Iturbe

Egunkariko erreportaje bat irakurri ondoren izan zuen Karmen Larrañagak Txernobil elkartearekin lehenengo harremana. Egoera larrian bizi diren umeen istorio eta bizipenen berri ematen zuen. Bere senarrarekin lehen ahalegina egin zuen Ukrainatik ume bat ekartzeko. Erabakia ez zen erraza izan, baina Karmenek ez zuen atzera egin nahi. Koinatarekin bilera batera joan zen Donostiara. “Neska izatea nahi nuen, eta gaztetxoa”, adierazi digu. Baina zazpi urte inguruko haurrak umetxo gehiago dauden familiek hartzen dituzte. Eskerra egin eta handik bi egunetara deitu zioten, domeka eguerdi batean. Familia falta zuten, eta Karmenek eta senarrak paperak sinatu zituztenean, zazpi urte zituela ohar-tu zen Ukrainatik etorri behar zuen neskatxak.

Oraindik ere hunkitu egiten da Nastia ikusi zuen lehen aldia gogoratzean. Urduri

zeuden, umea ikusteko irrikitan. Gaixorik zetorren, besoa hautsita. “Karmen, neska hau Aste Santuan ikusi genuenean baino okerrago dago. Bere amak uste du tokatu zaion familiak ez duela onartuko”, esan zion elkarteko batek. “Baina, nola ezetz?”, erantzun zion.

Lehenengo egunetan zeinu bidez komunikatzen zuten elkar. Baina, elkartekoek adierazi bezala, bi astetara hasi zen euskaraz hitz egiten. Orduan hasi zen, gau partean, etxera joan nahi zuela esaten. Guztiak egokitu behar izan zuten egoera berrira. Senarrak gaizki pasatu zuen hasieran, Nastiak ez ziolako kasurik egiten. “Lehenengo udako egonaldia gogorra baina betegarria izan zen”, gogoratzen du Karmenek.

Baina Nastia joatean senarrak ere faltan botatzen zuen. Astean behin elkarrekin hitz egiten zuten telefonoz. Eta ez zuten zalantzarik izan. Nastia hirugarren aldiz etorri da, bere irribarre eta leialtasunarekin. Deban ikusi zuen lehenengo aldiz hondartza, eta lagunak egin ditu Mendaron. Baina bereziki bere bigarren familia du bertan. Eta etorkizuna, Ukrainan nekezagoa izango duena.

Nastiak bederatzi urte ditu, eta hamazazpi urtera arte etorri daiteke programa horren bitartez Mendarora. Baina Karmenen familiak lagundu egin nahi dio. Eta Paul txikiari, Karmenen ilobari, Ukrainan, Mendarotik milaka kilometrotara, “tia Nastia” bizi dela esaten diote.

**Karmenen familiak asko eman eta asko jaso du.
Nastiaren osasunak ere hobera egin du**





“Nire amatxok lan asko egiten du, baina ‘moneta’ gutxi irabazten du”

Nastia ez zaio gustatzen bere herraldearen inguruan berba egitea. Ukrainaren egoera tamalgarria da. Txernobil elkarteko kide bat hara joan zen orain dela gutxi, eta Karmeni esan zion nola bizi ziren. Premia handienak dituzten umeak ekartzen dituzte handik. Euskal Herrian bi hilabete egonda, neguari aurre egiteko moduan itzultzen dira, indarberriturik.

Ukrainako gazte askok bi ordu inguru behar dituzte egunero eskolara joateko, autobusa eta trena barne. Ekonomia ere okerrera doa. Kilo bat madari sei eurotan saltzen dute, eta oilaskoa hemen baino gatestiago dago. Gainera soldatak ere eskasak dira. Ehun euro inguru irabazten du Ukrainako edozein langilek. Ez dago lanbideen arteko soldata desberdin-

tasunik. Dena den, krisi egoera dela medio, gero eta euskal familia gutxiagok ekartzen dituzte bertatik umeak. Nastiak miseria horretatik irteteko aukera du Mendaron familia eskuzabala duelako. “Jendeak esaten digu borondate onekoak izan gara. Baina Nastiak asko eman digu”, esan digu Karmenek. Nastiaren ama alargunak ere eskerrak ematen dizkie bere alabagatik egiten ari diren guztiagatik, eta azken egonaldian ere Nastia opariz beteta heldu da, euren esker ona adierazteko. Baratze txikia dute Irpenen, Kiev hiriburutik gertu, eta Nastia, bere ama eta amamarekin batera bizi da. Karmeni bere amak lan asko egin eta “moneta” gutxi irabazten zuela esan zion euskaraz.

EGONALDIA

Ukraina eta Europa Mendebaldeko beste herrialdeetatik uda pasatzera osasun arazo-egatik datozen gaztetxoek mesedetarako dira egonaldiok. Ez dira ez adopzio ezta kasting prozesuak ere. Izan ere, familia batzuk argazkiak eskatzen zituzten ume bat ala bestea aukeratzeko, ile edo begi koloreen arabera.

ONDORIOAK

Txernobilgo zentral nuklearren leherketaren ondorioz, inguruetako gazte askok arrisku handiagoa dute leuzemia edo tiroideetako minbiziren bat izateko. Egondaldi horietan euren bizitza kalitateak hobera egiten du.



Karmen Larrañaga, Nastia, Esti Gonzalez eta Paul.

Gure berbak

Aditza (23): aditz gehiago

Gatozen gaur aditzen beste adibide-sail batekin.

- *Soltero geratu naiz, eta ya nekez ezkonduko naiz.*
- *Besotik helduta eruan zebeu atxilotua.*
- *Bi mutilkoxorrek burrukan hasi dira, eta alkari engantxatuta geratu dira, askatu ezinda.*
- *Desesperau egitten nok haura ikusten doten bakoitzian!*
- *Tabako usaiña dauka, eta bentilau egizu erropa hori.*
- *Jata kristonak emango dixadaz hamentxe bertan!*
- *Intentzio onez egin dot, eta ez bota bronkarik.*
- *Sei ordu eta piko egin dittugu mendituzulixan.*
- *Bazkaldu, eta laurak aldiari beste erromerixa batera juaten giñan.*

Hona, hórren onduan, beste aukera batzuk, sarritan jatorraguak diranak:

- *Mutilzartu egin naiz, eta ya nekez ezkonduko naiz.*
- *Besotik oratuta eruan zebeu atxilotua.*
- *Bi mutilkoxorrek burrukan hasi dira, eta alkari katiatuta geratu dira, askatu ezinda*
- *Nere onetik ertetzen juat haura ikusten doten bakoitzian!*
- *Tabako usaiña dauka, eta oriau egizu erropa hori.*
- *Jata txiki(t)uko haut hamentxe bertan!*
- *Hobe biharrez egin dot, eta ez egiñ errietarik.*
- *Sei ordu pasau (pasatxo) egin dittugu mendituzulixan.*
- *Bazkaldu, eta laurak aldiari ospa egitten gendun erromerixa batera.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1955

Aste honetako erretratu zaharra Kristina Zabaletak laga digu. Lazaro Aranberri izan zen argazkilaria Sebastianana Soduperen solteratako azken agurrean. Manuel Sodupe "Gelatxo" soinu-jole ezagunaren alabaren ospakizuna "Txarri" tabernan egin zuten:

Lehenengo lerroan zutik: Maria Epelde (†), Maria Nieves Orbea, ezezaguna, ezezaguna, Maria Bollar, Crescen Zabala, Maria Mendikute (semearekin, Pedro Maria Sodupe), Kristina Zabaleta (umearekin Maria Luisa Badiola).

Bigarrenengo lerroan zutik: Maria Larreategi Musillo baserrikoa (†), Sebastianana Gandiaga, ezezaguna, Begoña Juaristi, Maritxu Sodupe (†), Miren Agirregomez-korta, Ines Arriola, Arkadia Muguruza, Juanita Txurruka eta Maria Juaristi.

Hirugarrenengo lerroan, makurtuta: Benita Juaristi, Sebastianana Sodupe eta Maria Etxaniz.

Laugarren lerroan, belauniko: Begoña Zabaleta, ezezaguna, Maria Zabaleta, Kontxita (donostiarra) eta Ines Altuna.



ESKERTZA



2008ko ekainaren 30ean hil zen *Martin Garagarza Ascorbe* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Skainean...

JAIOTAKOAK



Arhane Villanueva Sanz
Ekainak 5
Ibon eta Nagore

**Iker Aranzabal
Fernandez**
Ekainak 4
Ricardo eta M^a Isabel

Ismael Fathoun
Ekainak 21
Hicham eta Siham

Olga Gonzalez Barcelo
Ekainak 12
Jose Antonio eta Maria
Jose

Alaitz Pascual Fernandez
Ekainak 21
Pedro Maria eta Begoña

HILDAKOAK

Gloria Arano Oregi • 92 urte • Ekainak 1

Maria Isabel Gonzalez Relloso • 53 urte • Ekainak 2

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea
nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ESKERTZA



2008ko uztailaren 2an hil zen **Teresa Arrieta Echave** andrearen
sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Amaitu dira Idotorbe-San Pedroko jaiak

Karretilaren saria 1.413 zenbakidunak eramango du eta telebista 1.847 duenak

Giro paregabean ospatu dituzte Idotorbe-San Pedroko bizilagunek auzoko jaiak asteburu honetan. Ekitaldi ugariak jende mordoa hurbiltzea lortu dute.

Barixaku gaueko bertso afariak eta ondorengo parrandak lagun talde handia elkartu zuen. Hala ere, zapatuko motokrosak erakarri zuen jende gehien Idotorbe-San Pedrorra: inguruak zaletuz gainezka zeuden motokrosarekin gozatzeko.

Lagun Artea herri kirol taldearen erakustaldiak ere ikusmina piztu zuen domekan. Lagun Artekoek bi talde egin zituzten eta elkarren arteko lehia bizia izan zen. Harria jasotzen, ingudearekin, tron-tzan, txingekin eta antxintxiketari trebetasun handia erakutsi zuten.

Jaiak domekan amaitu ziren, Patxi Etxeberria (Matxinbenta), Joxe Antonio Beristain (Oikia) eta Joxe Antonio Sistia-garen (Urduliz) idien arteko norgehiagorarekin.



Karretilaren saria 1.413 zenbakiarentzat izan da (3.769 ordezkua). Telebistaren saria, berriz, 1.847 zenbakiarentzat izan da (3.338 ordezkua).

Fandango eta arin-arin ikastaroa

Fandangoa eta arin-arina ikaste-ko deia egin du Gazte Asanbladak. Izan ere, bihar, zapatua, ikastaroa hasiko da Gaztetxean primerako bi irakaslerekin, 10:00etan. Astean bi lanegun iluntzetan ere jardun nahi dute. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala Gaztetxera.

Entzierroa pantaila handian ikusteko aukera izango da

Pantaila handia jarriko dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan uztailaren 7tik aurrera, Iruñeko San Ferminetako entzierroak egunero ikusi ahal izateko, Kultura Sailaren ekimenez. Aurreko urteetan bezala, entzierroak 8:00etan hasiko dira.

Bertso Udalekuak

Aubixa baserriak 15-18 urteko neska-mutilak hartuko ditu uda honetan, Bertsozale Elkartearen ekimenez. Udalak diru-laguntzak emango dizkie parte hartu nahi dutenei, matrikularen %40 ordainduko die eta. Informazioa: Euskara Batzordean (943 74 43 66).

Martitzen goizean umeez sanfermin txiki eguna ospatuko dute



Iruñera joan gabe, herrian bertan sanfermin jaiak gozatzeko aukera izango dute aurten ere Elgoibarko umeez, martitzenean, uztailaren 8an. Bitik zortzira arteko umeez elkartuko ditu Atxutxiamaikak: 9:00etan Haur Eskolakoak batu eta ordu laurden geroago King-Kongen elkartuko dira denak. Handik Udaletxera joko dute. Pregoia 11:00etan izango da

eta gero entzierroari ekingo zaio. 11:15ean zezen eta poniekin jolasteko aukera izango dute. Gero txorizoa eman-go diete. Ekintza 12:30etan amaituko da.

Seme-alabak San Fermin txikia ospatzera joan daitezen animatzeko deia egin dute antolatzaileek, zuriz jantzita eta zapi gorriarekin. Berrehun ume inguru elkartzea espero dute.

BARREN

astekarian lan egiteko

KAZETARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua izatea (edo ikaslea) edo eskarmentua sektorean.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Irailean lanean hasteko.

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan-dedikazioa.
- Urtebeterako lan-kontratua.
- Urteko soldata gordina: 21.700 euro.

Curriculumak entregatzeko azken eguna:

UZTAILAK 7

Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea,
Ubitarte 4, behe 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)
E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

JOSE LUIS INSAUSTI

CD Elgoibarko presidente berria

Guraso eta bazkide batzuk animatuta, aurkeztu zen CD Elgoibarreko hautagaitzara Jose Luis Insausti. 2003tik 2006ra ere izan zen presidente. Sasoi hartan 700 bazkide inguru zituen klubak, eta orain, berriz, erdia. Horregatik herritar guztien partaidetza eskatzen du, gainbehera betean dagoen kirol elkarte indartu dadin. Ilusioz hasi da lanean.



“Herri guztiak egin behar du CD Elgoibarren alde”

Zein erabaki hartuko dituzu lehenengo?

Foru Aldundira joan beharko dugu. Gure asmoa infantil txikiak federatuen ligaxkan jokatzea da. Aurreko ligaxkan ere ezin zuten lehiatu. Baina ezezkoa esaten digute.

Zer dela eta?

Elgoibarren ume nahikorik ez dagoela esaten dute. Iaz 35 genituen alebinetan entrenatzen. Elgoibarko jaiotza-tasak ez omen du bat egiten ume kopuru horrekin.

Oinarri-futbola bultzatzea da, orduan, zure helburuetako bat?

Bai, eta diru sarrera gehiago lortzea.

Zubiarre auziaren inguruan ere zer egin adostu beharko duzue...

Iñaki Badiolari gutun formal bat bidali beharko diogu 500.000 euro horiek direla eta.

Abokaturik baduzue?

Ez, zuzendaritza taldekoen artean moldatu beharko dugu. Ez gauden abokatuak edukitzeko moduan dugun diruarekin.

116.000 euroko ondarea du CD Elgoibarrek...

Lau denboralditarako dirua besterik ez dugu, diru gehiago lortzen ez badugu noski.

Nola lortu liteke diru gehiago?

Bazkideen laguntza bulzatutz eta herriko dendak ere bazkide bihurtuz. Herri guztiak parte hartu behar du CD Elgoibarren alde. Bertan jokatu duten asko ere ez dira bazkide. Jende gazte askok paso egiten du, eta jokalarri batzuek ez dute behar bezala Elgoibarren izena defendatzen.

Hortaz, egoerak okerrera egin du?

Bai, presidente nintzenean 700 bazkide ginen, orain 350.

Printzipioz urtebeterako eman duzu hitza?

Lehen ere urtebeterako eman nuen eta gero hiru urtez egon nintzen. Ikusiko dugu. Baina ilusioz nago, lan egiteko gogoarekin.

Miguel Larizen eskarmentua kontuan hartuko duzu?

Ez, gauza puntualetarako. Itzuli egin beharko dute ondoren akaso. Bai?

Herria dagoen moduan, guztiok bueltatu egiten gara aurrez izan ditugun karguetara.


Herriari zerbait esan nahi diozu?

Busti daitezela eta klubari lagundu diezaiotela. Penagarria izango litzateke hitz egitera joan eta bizkarra emango balidate.

Nahaste Borraste herri proba irabazi eta errekor berria ezarri du Iñigo Larizek

Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen irabazlea

Karakateko azken igoerako txapeldunak irabazi du aurtengo Nahaste Borraste herri proba, Iñigo Larizek. Gainera, probaren errekorra bi segundutan hobetzea lortu du, eta 18 minutu eta 35 segunduko marka berria ezarri du. Bigarren postuan iritsi zen Jose Antonio Ruiz, iazko irabazlea, (18'41") eta David Conde hirugarren postuan (18'50"). Lehen emakumezkoa Ainhoa Lendinez izan zen (20'55"). Aurtengo edizioan 44 lagunek parte hartu zuten.



Munduko goitibehera txapelketa lau elgoibartarrek irabazi dute

Sanferminen atarian antolatzen dute urtero Iruñean

Juan Carlos Mancisidor, Agustin Zubiaurre, Joseba Iriondo eta Iban Segurola munduko txapel-dunak dira. Iruñean, sanferminak hasi baino egun batzuk lehenago ospatzen dute Munduko Goitibehera txapelketa, eta Espainiako talde batzuk parte hartzen dute. Baina munduko kategorian eman diote. Lau elgoibartar horiek eta beste bi zumaiarrek munduko txapelketa irabazi dute errodamenduen kategorian.

Maila horretan parte hartzeko goitibeheraren erroberek burdinezkoak izan behar dute. Sei talde bakarrik lehiatu ziren, eta azkenean, talde elgoibartarra nagusitu zen. Orain dela hiru urte ere gerturatu ziren Iruñera, baina orduan talde askok eman zuten izena, eta ezin izan zuten lehen postua lortu. Munduko txapel-dunak izateari garrantzia kentzen diote. "Katxondeo kutsua du", esan di-



gu Juan Carlos Mancisidorrek. Dena den, beste inork ezin du esan herrian munduko txapelduna denik.

Iruñeko Peñen Federazioak antolatzen du goitibehera txapelketa. Helburua sanferminak egun batzuk lehenagotik girotzea da.

Hasi dira kirol udalekuak



Guztira, 87 umek parte hartzen dihardute Elgoibarko Udal Patronatuak antolatutako kirol udalekuetan. Astelehenetik barixakura hainbat kirol jarduera praktikatzeko aukera dute: hokeya, tenisa, futbola, ur jolasak eta esku pilota... Bestalde, udako kirol kanpainaren baitan, 90 umek hartuko dute parte igeriketa, tenis eta aerobik ikastaroetan.

Hogei elgoibartar Extreme Bardenas mendi bizikleta proban

Nafarroako Arguedas herrian egi-ten da Extreme Bardenas mendi bizi-kletako proba. Espainiako probarik famatuena da bere partaidetzagatik (1.500). 115 kilometroko ibilbideak Bardeetako parke naturala zeharkatzen du. Beroa nagusi izan zen hogei elgoibartarrek parte hartu zuten proban. Horien arteak azkarrenak Aritz Sorazu (5 ordu eta 51 minutu); Iñaki Ulazia (sei ordu); Ibon Serrano (sei ordu), Zigor Azkoaga (sei ordu eta 14 minutu) eta Andoni Etxeberria (sei ordu eta hamabost minutu) izan ziren.



Eskubaloia campusa

Sanlo taldeak eskubaloia campusa antolatu du alebin mailako jokalarientzat. Astelehen, eguazten eta eguenetan izango dira entrenamenduak. Neskenak 18:00etatik 19:00etara eta mutilenak 19:00etatik 20:00etara.

Pilota txapelketa

Sigmako pilota txapelketa

2. maila

German-Karral **22** – Arrizabalaga-Gabilondo **7**

1. maila

Kepa Lizarralde **14** – Portu Agirrebeña **22**

Infantila

Larrañaga **18** – Ibarluzea **9**

Amesti **18** – Salegi **10**

LANA

ESKAERA

- Neska, umeak zaintzeko prest. ☎ **647 085 427**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest. ☎ **663 569 263 676 853 028**
- Neska sukaldari laguntzaile izateko, nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Gizonezko arduratsua, garbiketa lanak orduka edo publizitatea banatzeko prest. ☎ **622 625 812**
- Mutila, edozer lan egiteko prest. ☎ **638 494 501**
- Emakumezko arduratsua, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak orduka zaintzeko prest. ☎ **622 634 860**
- Emakumea, lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Eskarmentukoa eta autoa. ☎ **606 642 284**
- LH eta DBHko partikularrak emateko prest, euskaraz zein gaztelaniaz. Uztailan goizez. ☎ **688 664 727**
- Neska, lanerako prest. ☎ **659 194 189**
- Emakumea, interna lan egiteko prest. ☎ **618 175 692**
- Neska, arratsaldean lan egiteko prest. Garbiketarako, nagusiak zaindu... ☎ **696 246 962**
- Neska, gauetan lan egiteko prest. Nagusiak zainduz edo sukaldari laguntzaile moduan. ☎ **699 576 107**
- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako prest. ☎ **696 284 351/943 53 01 32**
- Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, LOGSE eta zikloak. Ekainean eta uztailan. ☎ **653 717 972**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari aritzeko do garbiketa lanerako prest. ☎ **680 250 527**

ESKAITZA

- Bezeroarentzako arreta-zerbitzua ematen duen administraria behar da. Informatikako ezagutzak beharrezkoak dira. Irailetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara. ☎ **943 744 221**

- Zerbitzaria behar da Txariduna hotelerako. Kontratua jardunaldi osorako. Esperientzia beharrezkoa. ☎ **943 74 87 78**
- Neska edo emakumezko euskalduna behar da irailetik aurrera orduka umea zaintzeko. ☎ **689 339 529**
- Zerbitzaria behar da astebururako eta jai egunetarako Mendaron. ☎ **943 030 150**
- Sukaldaria behar da. ☎ **943 74 31 96**
- Eskarmentua duen sukaldaria behar da. ☎ **943 74 45 78**
- Pertsona arduratsua behar da umeak uztailetik aurrera zaintzeko. ☎ **605 585 057**
- Bitxiak, barruko jantziak eta kosmetika produktuak saltzeko pertsona behar da. Soldata ona. Ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Pisua salgai San Roke auzoan. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, sukaldaria eta egongela. Gasa, garajea eta trastelekua. ☎ **696 301 694**
- Etxe berria salgai Mendaron. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, egongela handia. Erdi ipinita eta modu onean. ☎ **652 757 240**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukaldari berria, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariak salgai. ☎ **628 115 677**

GARAJEAK

- Urasandin garaje plaza salgai. ☎ **656 718 761**
- Garajea salgai Urasandin inguruan. 12m² + 12 m². ☎ **620 856 768** (arratsaldeetan 17:00etatik 21:00etara)
- Bi pisuko garajea alokairuan. ☎ **943 74 23 44**

MOTORRA

- Citroen C4 1.6 HDI. 60.000 km². 92 zaldi. 10.000 euro. Negoziagarri. Egoera onean. ☎ **650 840 620**
- Motorra salgai Rieju MRX. ☎ **943 74 41 41**


BESTELAKOAK

- Errepideko bizikleta salgai. Giant, hiru plater, T. 48. 275 euroren truke. ☎ **658 758 458**
- Garbigailua salgai. Aspes markakoa. Hilabete bat du. 150 euroren truke. ☎ **671 956 677**

Seat Leon TDI beltza salgai

- 105 zaldi, eguzkirako goialdea, Kit aerodinamikoa. 15.000 km. 17.000 euro. Transferitua. ☎ **647 626 693**

- San Frantzisko kalean urre kolorezko erloju gaia da uztailaren 1ean. ☎ **943 74 31 95**
- Labea eta Mepamsa eta plaka bitrozeramikoa Aspes markakoa salgai. Berriak. ☎ **646 434 293**
- Gortinak, altzariak, alfonbrak, oherako izarak eta elektrogailuak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Zapatilari lotzen zaizkien gorpilak ahaztu nituen domekan, ekainak 8, Sigmako frontoian. Beltzak dira, argiekin. ☎ **600 300 682**
- The Police-n kontzerturako sarrera salgai prezio berean. 72 euro. Uztailaren 4ean (BBK Bilbao Live). ☎ **626 146 849**
- Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita simaurra eta lan egiteko erremintak ere. ☎ **655 723 678 / 943 74 39 19**
- Errepidekoa bizikleta errepidekoa salgai. Giant, hiru plater, T. 48. 275 euro. ☎ **658 758 458**



BEKAK

BERDINTASUNA

Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako gipuzkoako foru aldundiaren diru-laguntzak. Epea: uztailak 18.

IKASLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. 2008-2009 ikasturtean Akitaniako unibertsitatearen batean ikasketak egiten dituzten gipuzkoar gazteen-tzako Gipuzkoako Foru Aldundiaren bekak. Epea: abuztuak 31.

LEHIAKETA

IPUINA

Eusko Jaurlaritzaren Gazteaukeraren Ipuin Laburren V. Lehiaketa. Saria: Ingeles ikastaroa Dublinoan, ostalua eta bidaia barne. Epea: uztailak 18.

LANA

ALDI BATERAKOAK

Gipuzkoako Gazte Informazio bulegoak. Oporretan xoxa batzuke atertzeko. Informazio gehiago www.gipuzkoangazte.info-n.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: gib@elgoibar.org ☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan: 11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan: 16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARRENEN** eta astero **barren.iragarkilaburak.com** atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Nora**, urtetxo bat egin duzulako. Patxo handi bat etxekoan eta bereziki Marenen partez.



• Zorionak, **Irene**, astelehenean bi urtetxo egingo dituzulako. Familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Helene**, hilaren 10ean bederatzirte egingo dituzulako. Ondo pasatu familiaren partez.



• Zorionak, **Markel**, zure lehenengo urtebetetzean-Familia eta bereziki Jakes eta Paularen partez.




• Zorionak, **Julen**, bost urte egingo dituzulako. Familia osoaren eta bereziki Oier anaiairen partez.



• Zorionak, **Gaizka**, zure urtebetetzean jarraitu horrela zure familia eta lagunaren artean.



• Zorionak, **Gorka**, lau urtetxo egingo dituzulako. Familia osoaren eta bereziki Anderren partez.



• Zorionak, **printzesa**, zortzi urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Paula**, zure hamaikagarren urtebetetzean. Egun ona pasa dezazula familiaren partez.



• Zorionak, **Mikel**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Veronica**, hamabi urte egingo dituzulako gaur. Fenando, Coro eta Badyren partez.



• A ze parean, karakola eta barea. Zorionak! Gora San Fermin!



• Uztailaren 8an dozena bat bion artian. Zorionak etxeko guztion partez.



• Zorionak **Arkaitz** eta **Jose**, asteazken eta ostegunean ongi pasatu zenutela-koan. Familiaren partez.



• Zorionak, **Alaitz** eta **Ane**, urte bat eta bost urtetxo egin dituzuelako hurrenez hurren.



• Zorionak, **bikote**, 8an eta 21an zuen eguna delako. Ondo pasa zuen familia eta lagunaren partez.



• Zorionak, **laukote**, uztailean eta abuztuan urtebetete egingo duzuelako. Muxu handi bana ikastolako laguntxoaren partez.



klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835



**Erreformengatik
ITXITA abuztura arte**

San Bartolometarako
erreserba egin nahi baduzu
deitu ezazu 618 259 339 mugikorrera

OKINDEGIA

6 domeka **DOÑA MERCEDES**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 4 Etxeberria (Errosario)
- 5 Garitaonandia
(*Goizez Ibañez)
- 6 Ibañez
- 7 Garitaonandia
- 8 Etxeberria (Errosario)
- 9 Zabaleta
- 10 Yudego
- 11 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



«Mortadelo y Filemon»

4, barixakua: 22:30

«Tierra»

5, zapatua: 22:30
(Plaza Handian)

musika

5 zapatua

18:00 Hip Hop kontzertua
Eliza ebanjelikoak antolatuta,
Hip Hop kontzertua izango da
Madalako Parkean.

lehiaketak

8 martitzena

13:00 Kartel lehiaketa
San Bartolome jaietako
kartel lehiaketara lanak
aurkezteko azken eguna.
Informazioa: 943 742158
telefonoan.

hitzaldiak

4 barixakua

19:00 Aralarren hitzaldia
"Ezkerretik independentziara".
Jon Abril eta Asier Lertxundiren
hitzaldia. Kultur Etxean.

22:00 Bideo Forum

Haizea emakume taldeak
antolatuta, *Porque lo digo yo*
pelikula. Hizlaria Eskarne
Larinaga. Kultur Etxean.

11 barixakua

19:30 Dokumentala eta
mahaingurua
Haizeak antolatuta, *Dentro del
Tibet* dokumentala eta
mahaingurua. Kultur Etxean.

Ikastaroak

5 zapatua

10:00 Fandango eta
arin-arina
Ikastaroaren hasiera.
Gaztetxean.

besteak

5 zapatua

15:30 Rally-a
San Migeleko rallysprint-a
Elgoibar eta San Migel
arteko errepidean.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**DONOSTIAKO
NATUR TXOKO
ETA IRLARA
EGUN PASA
IRTEERA**

UZTAILAK 8, ASTEARTEA

Irteera: 10:00etan ludotekan
Itzulera: 20:20an ludotekan

UZTAILAK 10, OSTEguna

Mintxetako igerilekuetara irteera
Irteera: 16:00etan ludotekan
Itzulera: 19:30etan ludotekan

Oharra: Irteera egunetan ludoteka itxita egongo da

GAZTELEKUKO EKINTZAK



**UDALEKUETARA
GOAZELAKO**

Uztailak 9tik 16ra bitarte,
baztelekua itxita egongo da

«Mortadelo y Filemon»,

Zuzendaria: Miguel Bardem.

Aktoreak: Eduard Soto, Pepe Viyuela,
Berta Ojea, Mariano Venancio, Janfri
Topera, Carlos Santos. Iraupena: 94
minutu

Lurrak mehatxu bati aurre egin behar
dio. Lehortea handia dago, eta gaizkile
talde batek Lurrean dauden ur erreser-
bak deuseztatzea du helburu. Asmo
horri aurre egiteko, isileko agenterik
onenak elkartuko dira.

6 domeka

11:00 Arku tiraketa

Zarta arkulari taldeak antolatuta, umeentzako arku tiraketa saioa. Mintxetan.

7 astelehena

8:00 Entzierroak zuzenean

Sanferminetako entzierroak zuzenean eskainiko dira Kultur Etxean, hilaren 14ra arte.

8 martitzena

10:30 Sanfermin Txiki

Atxutxiamaiak antolatuta, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar egingo da entzierroa. Ondoren, zezentxo eta poniak Plaza Handian.

9 eguaztena

19:00 Autodefentsa ikastaroa

Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolan. Irakaslea Pello Plaza.

Informazioa: 652714062

PRAILEAITZ EZAGUTZEKO KANPAINA

4 BARIXAKUA

19:00 Antzezlan

Praileaitz ezagutzeko ekintzen baitan, Klowntuz antzezlan izango da. Kultur Etxean.

5 ZAPATUA

10:00 Mendi irteera

Sasiola ingurura egingo dute Praileaitzeko ingurunea ezagutzeko. Madalan 9:30ean eta 10:00 Astigarribiako plazan.

8 MARTITZENA

19:30 Hitzaldia

Praileaitzko aurkikuntzei buruzko hitzaldia. Hizlariak: Xabier

Peñalver arkeologoa eta Sonia San Jose lankidea. Kultur Etxean.

9 EGUAZTENA

19:30 Museora bisita

Mufomi fosil eta mineralen museoa bisitatzera joango dira.

10 EGUENA

19:30 Bideo emanaldia

"Harri aroko venusak" bideo emanaldia. Gaztetxean.

11 BARIXAKUA

20:30 Erakusketaren amaiera

Kultur etxean dagoen erakusketa ikusteko azken eguna. Ondoren luntxa eskainiko dute.

PIXKA, BAT ES, MUCHO

UKAN RECORDS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hartu doan pixkabatesmucho.com webgunetik.

IKASBARRREN



Ikasturteari agur berezia



Elgoibar Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako neska-mutil eta gurasek ikasturte amaiera ospatu zuten bazkari eder batekin. 107 lagun bildu ziren.



IMH SARIETAN 68 IKASLEK JASO ZUTEN MEREZITAKO DIPLOMA

IMHko Heziketa Zikloen Diploma eta Sari banaketa egin zuten ekainaren 27an. Guztira 68 ikaslek jaso zuten diploma hainbat alorretan.



Ohorezko ikasleak

Leire Mendikutek, Nerea Iñurrietak, Maitena Arrizabalagak, Garazi Esturok eta Garazi Arizagak jaso zuten ohorezko matrikula Elgoibar BH Institutuko, Batxilergo eta Zikloetako diploma banaketa ekitaldian.

UDALEKUAK MARTXAN DAUDE



Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta umeentzako udalekuak ekainaren 30ean hasi ziren. 160 umeek hartuko dute parte udaleku irekietan.



Arku tiraketa

Domekan Mintxetako igerilekuaren atzealdean arku tiraketarekin gozaldean arku dute Eskola Kirola egin duten umeek. Zartak antolatutako ikastaro horren ordutegia 11:00etatik 13:00era izango da.



Gorputzari erreparatu

Gorputzarekin harremanetan jartzeko gaitasuna ahaztu egiten dugu, eta adimen hutsa baino ez garela irakasten digute-eta. Irudiaz arduratuz eta mina nahiz ondoeza sentitzean baino ez gara gorputzarekin gogoratzen.

Tentsio, presa, beldur, zalantza eta abar luze bat esan nahi du adimen hutsan bizitzeak. Beti ere borroka bati lotuta dago hori guztia, errealitatea guk nahi dugun bezala izan dadin, falta zaigun segurtasuna jasoko dugula sinisten dugun bitartean. Borroka hori ez da beharrezkoa, baina: segurtasun hori ez di-

gu adimenak ekarriko, harantzago joateak baizik eta honantzagoko printzipio batekin.

Pilatutako tentsioa askatzen dute teknika ezagun eta trebatu askok (ariekta fisikoak, oporrak...). Entzundako beste batzuek, berriz, trebatu gabekoak zenbaitetan (naturopatia, masajeak, polaritatea, bach loreak -sentikorrangoa-, homeopatia -adimenezkoa-...), progresiboki harmoniatsuago sentiarazten gaituzte, erlaxazio teknikekin edo auto-erlaxazioarekin batera.

Bizi izandako esperientziatik abiatuta sentitu behar du gure arteko ba-

koitzak. Norberarekin ondoen egokitze modua da.

Denok nahi dugu bizitza sentikorrangoa bizi. Horretarako funtsezkoa da geure okerrez jabetzea, zoriotsu egiten gaituen hori geure bizitzan barneratzen dugun artean.

Gorputzari erreparatzea bizitzari atea irekitzea da, bakea, konfiantza, trebetasuna, eta abarrak esperimendatzea; azken batean, bizitzari lotua sentitzea.

Adimenean zaudela konturatzen zarenean, jarri zure gorputzari arreta haundiagoa.

Probatu, gozatu eta uda ona pasa!!

Joxean Lopez Fernandez

Naturopatia - Homeopatia - Bach Lorak

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berri!!! Naturopata, Iridiologia eta

Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...)

Bach loreak, P.N.L., makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Ildoa)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itzar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranzatzaile

linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping

neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz,

etxez etxeko zerbitzua eskainiko

litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz

eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjiodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santa Ana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelal

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Desigual Pinturak

San Ignazio 5, behea
☎ 943 74 89 25
☎ 677 84 60 69
Faxa: 943 53 15 02
pinturasdesigual@hotmail.es